


# PR-Gi 3004

## Kontrabandisten bideak

**12,8 Km / 4 h 45 min**

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.

**PR-Gi 3004** **Kontrabandisten bideak**

Urak harriak oharkabean mugitzen eta higatzen dituen moduan aritzen ziren inguruetako kontrabandistak estraperloan, ingurune Karstiko honetan. Koba, bide eta zuhaitz artean ederki moldatzen ziren, bazterrak inork ez bezala ezagutzen baitzituzten. Gaur egun galtzeko arriskurik ez du izango ibiltariak, bidea argi markatua baitago.

Del mismo modo que el agua mueve y desgasta las rocas de manera inadvertida, se desenvolvían los contrabandistas en esta zona cárstica, y lo hacían con naturalidad, ya que conocían mejor que nadie las cuevas, los caminos y árboles del lugar. Actualmente el caminante no podrá perderse, ya que el recorrido está señalizado claramente.




### Profila
Perfil

Track altuera ( m )
Altura Track ( m )
750
700
650
600
550
500
450
400
350
0
2
4
6
8
10
12
Distantzia ( km ) | Distancia ( km )
a
b
c
d
e

Luzera | Longitud
12,8 km

Desnibela | Desnivel
+746 m / -734 m

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



BELLOSTEGI ETA AITZABAL: Oso garaiak ez diren arren, Aitzabal (752m) eta Bellostegi (792m), mendi hauek ikuspegi zabala eskaintzen dute daukaten kokapenagatik, bereziki pare-parean dagoen Arantzazuko Santutegiarena. Ikuspegi paregabe honen arrazoietako bat Urkulu, Begiolatza eta, hauen zordun den, Arantzazu errekek sortu duten trokartea da. Bai Bellostegik eta bai Aitzabalek gurutzea eta postontzia dituzte tontorrean.

BELLOSTEGI Y AITZABAL: Aunque los montes Aitzabal (752m) y Bellostegi (792m) no tienen mucha altura ofrecen, por su localización, una amplia panorámica, especialmente del Santuario de Arantzazu, que se halla enfrente. Una de las razones de esta espléndida vista es el barranco que han formado las regatas de Urkulu, Begiolatza y el Arantzazu que es deudor de los dos anteriores. Tanto Bellostegi como Aitzabal poseen una cruz y un buzón en sus cimas.

b



IRITEGIKO SURGENTZIA: Arroila, oso-osorik, Aizkorri lurpeko ur-masari dagokio; zehatzago, Iritegi azpiunitateari, zeinak izena ematen baitio arroilako ur-begi nagusiari. Hainbat deskarga-puntu ditu ur-begi nagusiak, maila freatikoak akuiferoan gora egin ahala aktibatzen direnak. Surgentziaren urteko bataz besteko emaria 380l/s, hau da, 12hm3/urte inguruan kokatzen da. 16 $km^2$ -ko arro isurlea du.

SURGENCIA DE IRITEGI: El cañón pertenece en su totalidad a la Masa de Agua Subterránea Aizkorri, más concretamente a la Subunidad Iritegi, que da nombre a la principal surgencia existente en el cañón, que está compuesta por varios puntos de descarga que se activan a medida que el nivel freático asciende en el acuífero. Su caudal medio anual se sitúa en torno a los 380 l/s, esto es, unos 12hm3/año. Posee una cuenca vertiente de 16 $km^2$.

c



SAN JUAN ARTIA: Kalagorriko Galtzadaren ondoko goi-lautadan (775 metro) kokatuta baseliza, ostatu edo baserri izan ziren bertako eraikinak; eta, bidelapurrak, mandazainak eta kontrabandistak handik igaro ziren. Hori guztia, dirudienez, XV. eta XVIII. mendeen artean gertatu zen. Hala ere, egindako indusketen arabera, badirudi X. menderako bazela han industria txikiren bat. Egun, arrasto batzuk geratzen zaizkigu istorioz beteriko iragana oroitzeko.

SAN JUAN DE ARTIA: Asentada en una altiplanicie (775 metros) junto a la Calzada de Calahorra, los edificios allí situados fueron ermita, venta o caserío; y, los salteadores, arrieros y contrabandistas frecuentaron el lugar. Todo ello, según parece, ocurrió entre los siglos XV y XVIII. Aun así, de acuerdo a las excavaciones realizadas, parece ser que para el siglo X había ya alguna pequeña industria. Hoy, solo unos pocos restos nos evocan un pasado cargado de historia.

d



MADINA AUZOA: Madina, Madiña edo Maiña izenez ezagutzen da, Jaturabe urtegiaren gainean dagoen mendiko auzune hau. Oso etxe gutxiz osatutako gune bat da baina, arkitektura aldetik interesgarriak diren ezaugarriak dauzka. Oñati herriaren erdigunetik urrundutako gune honetan gordeko zituzten estraperlistek, ziurrenik, hara eta hona eramandako salgaiak.

BARRIO MADINA: A esta barriada situada sobre el embalse de Jaturabe se la conoce por los nombres de Madina, Madiña o Maiña. Es un núcleo formado por muy pocas casas, pero contiene características interesantes desde el punto de vista arquitectónico. A buen seguro que los contrabandistas de la zona guardaban aquí los objetos que transportaban de aquí para allá.

e



ARRIKRUTZEKO KOBAK: Haitzuloko kare-hormen artean dago idatzita milaka urteko geologiaren historia baina, baita gizakiena eta animaliena ere. Horren erakusle dira hemen aurkitu diren aztarnak: Errinozeronte iletsua (Coleodonta antiquitatis), leize hiena (Crocuta crocuta spelaea) edo orein erraldoia (Megaloceros giganteus). Hala ere, aipagarrienak leize hartza (Ursus spelaeus) eta Iberiar Penintsula mailan bakarra den leize-lehoiaren (Panthera leo spelaea) hezurdura osoa dira.

CUEVA DE ARRIKRUTZ: Miles de años de historia geológica están escritas en las rocas calcáreas de esta gruta, pero también la de los humanos y los animales. Son significativas de ello las huellas halladas aquí: el rinoceronte lanudo (Coleodonta antiquitatis), la hiena de las cavernas (Crocuta crocuta spelaea) o el ciervo gigante (Megaloceros giganteus). En cualquier caso, los hallazgos más importantes son los de los osos cavernarios (Ursus spelaeus) y el esqueleto completo de un león de las cavernas (Panthera leo spelaea) único en la Península Ibérica.

### MIDE

| Ingurunea / Medio | Ibilbidea / Itinerario | Desplazamendua / Desplazamiento | Ahalegina / Esfuerzo | MIDE ordutegia / Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 3 | 4 h 45 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke** El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra** Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia** De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 )) SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Monolitoa**
Monolitos

**Aisia-lekua**
Area recreativa

***Ibilbide irisgarria**
*Paseo accesible

arazi
OÑATI debiken herria
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa